

## GOBERNU BATZARRA

2016. 03. 14

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko martxoaren hamaluan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peón Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria Nerea Letamendia Belloso Jokin Azkue Arrastoa Iñigo Alonso Sarasibar</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Idazkaria:</b>	2.- 2016 urteko Udal ekarpena.
<b>Jose Luis Unanue Ugalde</b>	3.-Peñascal hitzarmena- Laguntza teknikoak.
<b>Kontuhartzaitzako Teknikaria:</b>	4.- Emeterio Arreseko Zentro Sozialari dagozkion hainbat gai.
<b>Paulino Alonso Eraso</b>	5.-“Oporrak Bakean” programa. Saharako umeen harrera, 2016. urteko proposamena. 6.-“La Caixa”- rekin hitzarmen onartzea. 7.-Iurramendi Egoitza. Otsaileko faktura. 8.-4/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko martxoaren 7an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

## **2.- 2016 urteko Udal ekarpena.**

Tolosaldea Garatzenek, 2015ko abenduaren 17ko Batzar Orokorrean onartutako Gestio Planean zehazten denaren arabera, 2016ko urterako Tolosako Udalak Tolosaldea Garatzeni egin beharreko ekarpena aurkeztu du. Ordainketa bi zatitan egitea erabaki zen.

Ekarpen honen kopuruak honako hauek dira:

Gestio Plana	90.955,00
KIUB (Konts.bulegoa)	15.453,00
<b>GUZTIRA:</b>	<b>106.408,00</b>

- Lehenengo ordainketa (2016/03/30ean) 53.204,00 €

2016eko martxoaren 7an, Tolosaldea Garatzen-eko gerenteak honoko dokumentazio hau aurkeztu zuen:

- 2016ko Gestio Plana

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Ekonomiaren Sustapeneko teknikariak egun duen txostenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez balituta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea Udalak Tolosaldea Garatzeni 2016an egin beharreko ekarpena: 106.408,00€

**BIGARRENA.**- Lehenengo ordainketa egitea, hau da, 53.204 euro.

**HIRUGARRENA.**- Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Tolosaldea Garatzeni.

## **3.- Peñascal hitzarmena- Laguntza teknikoak.**

Ezgaitasuna edo/eta mendekotasuna dutenen kolektiboari, pertsona horien autonomia handitzeko asmoz, tresnak eta ekipamenduak eskaintzen zaikie.

Gipuzkoako Foru Aldundik Gizarte Politikako Departamentuak programa bat dauka baina larritasunaren aurrean {ospitaleko altak, ustekabeak eta bat-batean gertatutako mendekotasunak (iktusak, istripuak...)} udalek berehalako erantzuna ematen du Aldundiak ebatzi eta produktuak eman arte pertsona hauei.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariek eta Tolosaldeko beste udal batzuek aipatu dute Peñascal Kooperatibak eman duen zerbitzuaren balorazioa oso ona izan dela, eta, bestalde, gizarte bazterketako egoeran edo hala egoteko arriskuan dauden kolektiboan egiten duen lana kontuan hartuta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Peñascal kolektiboaren eta Tolosako udalaren arteko Lankidetzaren hitzarmena onartzea.

**BIGARRENA**.- Xedatzea Lan hitzarmenaren iraupena: 2016ko abenduaren 31 arte, urtero-urtero luzatu ahal izango da beste bi urtez, baldin eta aldeztatik Gobernu Batzarrak edo Alkateak hala erabakitzen badute.

**HIRUGARRENA**.- Finkatzea kontratuaren kostua: aurtean 5.808€-koa da eta hurrengo urteetan honetarako erabakitzen dena.

**LAUGARRENA**.- Erabaki honen berri ematea Peñascal Kolektiboari, Kontuhartzailtzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

#### **4.- Emeterio Arreseko Zentro Sozialari dagozkion hainbat gai.**

Emeterio Arrese 2ko egoitza ireki zenean, Tolosako Udalak zenbait elkarterekin hitzarmena sinatu zuen, bertako gelak uzteko. Hitzarmenean jasotzen zen lagapenak gehienez lau urteko iraupena izango zuela.

Aipatutakoa kontuan izanik, eta Gizarte Zerbitzuetako teknikariak egin duen proposamenarekin bat etorritik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## **ERABAKI DU**

**LEHENA**.- Lagapen hitzarmen berri hauek onartzea.

- \* Tolosaldea Sahararekin.
- \* Colectivo Saharaui en Gipuzkoa.
- \* SOS Racismo.
- \* Asociación de Inmigrantes Booloo Senegal.

Hitzarmen hauen iraupen lau urtekoa da eta beste lau urte luzatu ahal izango da, baldin eta aldeztatik Gobernu Batzarrak edo Alkateak hala erabakitzen badute.

**BIGARRENA.**- Hurrengo elkarte hauei lagapen hitzarmena berritzea:

<b>ELKARTEA</b>	<b>LUZAPEN PROPOSAMENA</b>
<b>Harizpe</b> (Jubilatu eta pentsionistak)	2019/01/02
<b>Aecc</b> (Minbiziaren aurkako elkarte)	2018/05/12
<b>Tolosako Arrantzaleak</b>	2019/01/02
<b>Targazki</b> (Tolosaldeko argazkilari taldea)	2019/01/02
<b>Gainditzen</b> (Asociación de personas sordas)	2019/01/02
<b>Aslemegi</b> (Asociación de lesionados/as medulares)	2019/01/02
<b>Appetol</b> (Asociación de personas prejubiladas y viudas)	2019/01/02
<b>Beti ikasten Elkarte</b>	2019/01/02
<b>Nagusilan</b>	2019/01/02

**HIRUGARRENA.**- Ondorengo elkarteekin sinatutako hitzarmena bertan behera uztea, instalazioak erabiltzen ez dituztelako:

- \* Amigos de Cuba y palante.
- \* Aspaldi.
- \* Berdinbide
- \* Bilgune Feminista.
- \* Bizi bide.
- \* Jatorkin (Larramendiko lokalera sartu dira).
- \* Tolosa&Co (Udalak utzitako beste egoitza batera joan direlako).

**LAUGARRENA.**- Egungo erabilera plazaratzea.

Aurreko ataletan zehaztutakoa dela medio, elkarteei proposatu zaie gaurtik aurrera Emeterio Arrese 2ko lokalen behin betiko erabilera ondorengoa izatea:

<b>ELKARTEA</b>	<b>BULEGOA</b>	<b>ERABILERA</b>
Harizpe	Beren bulegoa. Sarreran	Egunero
Aecc	Beren bulegoa. Sarreran	Egunero
Tolosako Arrantzaleak	1 Gela	Asteartea, asteazkena eta osteguna, 18:00-21:00 (asteak alternatzen dituzte)

Targazki	1 Gela	Astean behin, gutxi gora behera
Colectivo Saharaui en Gipuzkoa	2 Gela	Astelehena, asteazkena eta ostirala, 9:00-14:00
Tolosaldea Sahararekin	2 Gela	Zehaztu gabe
Gainditzen	3 Gela	2 egun oso astean
Aslemegi	3 Gela	Astearte eta ostegunetan, 10:00-13:00
Afestta	3 Gela	Hilean behin erabiltzen dute bilera gela, normalean igandeetan. Despatxua ez dute erabiltzen, bakarrik armairua beharko dute dokumentuak gordetzeko.
SOS Racismo	4 Gela	Asteazken arratsaldea 16:00- 20:00 Osteguna, 9:00-13:00 Bilera-gela, itxaron-gela erabili
Asociación de Inmigrantes Booloo Senegal	4 Gela	Igandetan bakarrik erabiliko dute, 13:00etatik 15:00etara.
Sendian	4 Gela	Hileko lehen eta hirugarren astear-tean, normalean. 10:30- 13:30
Afagi	5 Gela	Ostegunetan, 9:30-14:30
Appetol	5 Gela	Astean egun bat (zehaztu gabe) 10:00-12:30.
Beti ikasten	5 Gela	Astelehenetan erabiltzen dute (gehienbat maiatza, ekaina eta irailean)
Nagusilan	5 Gela	la ez dute erabiltzen, hileko azkeneko astear-tean bilera-gela erabiltzen dute. Bulegoa armairurako soilik.

**BOSGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea aipatzen diren talde guztiei eta Gizarte Politikako Departamentuari.

## **5.- “Oporrak Bakean” programa. Saharako umeen harrera, 2016. urteko proposamena.**

Tolosako Udalak eta Tolosaldea Sahararekin Elkarteak bultzatuko dute beste tolosaldeko udalek “Oporrak Bakean” programan parte hartzea.

Hori dela eta, “Oporrak Bakean” programaren kudeaketa eta gastuaren ordainketa herri bakoitzak hartutako duen ume kopuruaren arabera izango da.

Tolosak, gehienez, 10 umeren harrera egingo du: 1.900€ gutxi gora behera ume bakoitzeko gastua.

Harrera familiak lortzeko arazorik izango balitz, umeak Tolosak aterpetxean hartzeko proposamena ere egin da.

Beraz, aipatutakoa kontuan izanik eta Gizarte Politikako batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Tolosako Udalak, aurten ere, 10 Sahara umeren bidaiak, jarduerak eta koordinatzaile eta monitoreen kontratazioak finantzatzea, guztira 1.900€, bidaiaren kostua 700€ izanik gutxi gora-behera.

**BIGARRENA.**- Lehentasuneko irizpideak onartzea 10 Sahara haur horien harrera egin ahal izateko:

**2.1.-** Umeek hartzen dituzten familiak Tolosan bizi eta erroldatuta egotea.

**2.2.-** Tolosan familia hartzaileak 10 baino gutxiago badira, Tolosaldean bizi eta erroldatuta egotea, baldin eta zonaldeko beste udalek ez badute finantzatzen.

**2.3.-**“Maiatzak 20, saharar herriaren aldeko” elkarteak egindako eskaerari erantzuna emanez, Tolosaldean familia hartzaileak 10 baino gutxiago badira, aterpetxean hartzen diren gainontzeko umeen bidaiaren kostua finantzatzea.

**HIRUGARRENA.**- Proiektua aurrera eramateko behar diren pertsonen kontratazioa egitea:

**3.1.-Koordinatzailea:** Oporrak Bakean programa aurrera eramateko beharrezkoa da koordinatzaile baten kontratazioa egitea jornada osorako, eta kontuan hartuta umeak gutxi gora behera ekainaren amaieratik abuztuaren amaierara egingo direla, 2 hilabete hain justu, Ana Trapero Urdagarin kontratatzea koordinatzaile gisa, 3 hilabetez eta jornada osorako, 11,5 retribuzio mailarekin. Kontratazio epeari dagokionez, hurrengo hilabeteetan zehaztuko da data konkretua.

**LAUGARRENA.**- Programaren informazioa zabaltzea udak komunikazio-zerbitzuaren bidez (Tolosako herrian Gizar berriren bitartez eta Tolosaldean prentsaren bidez).

**BOSTARRENA.**- Erabakiaren berri ematea Kontuhartzaitzari eta Pertsonal departamentuari.

#### **6.- “La Caixa”- rekin hitzarmen onartzea.**

“La Caixa Fundazioak” sustatuta, adinekoen partaidetza aktiboa bultzatzeko helburuarekin, lankidetzak-hitzarmen berria sinatzeko proposamena egin dute.

Ikusita, alde batetik, balorazioa oso positiboa izan dela eta, bestetik, Udalari inongo kosturik ez dakarkiola, Gobernu Batzar honek, Gizarte Politika batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- Onartzea aipatutako partaidetza aktiboa bultzatzeko arautuko duen lankidetzak hitzarmena, “La Caixa” eta Udalaren artean gauzatuko dena.

**BIGARRENA.**- Aipatzea hitzarmenaren epea: 2016ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte izango dela eta beste urtebete luzatzeko aukerarekin (2017ko abenduaren 31ra arte).

**HIRUGARRENA.**- Adieraztea Hitzarmen honen baitako jarduera burutzeko unean, Tolosako Udalean indarrean dauden hizkuntza-irizpideak erabiliko direla, **“Aholkularitza eta laguntza kontratueta eta zerbitzu kontratueta”** izeneko atalean adierazitakoari jarraiki.

**LAUGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea “La Caixa”ri, Kontuhartzaitzari eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

#### **7.- lurreamendi Egoitza. Otsaileko faktura.**

lurreamendi egoitzak otsaileko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **ERABAKI DU**

**LEHENA.**- lurreamendi egoitzari ordaintzea otsaileko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, **16.116,09** €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 607,84 €  
Elbarrien defizita: 15.508,25 €

**BIGARRENA.**- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

**8.- 4/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzailetzak **4/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **179.339,81 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

**ERABAKI DU**

**LEHENA.**- **4/2016** faktura zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Jose Luis Unanue Ugalde**